ALHAO

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko uztailaren 27a, ostirala • 86 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**422/2018 Foru Agindua, uztailaren 9koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Honako hau aldatzea: 703/2017 Foru Agindua, abenduaren 26koa, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez artezteko arauak eta zehaztapen teknikoak ezartzen dituena**

Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez fakturazio erregistro elektronikoak igorriz artezteko sistema abenduaren 5eko 56/2017 Foru Dekretuak onartu zuen (horren bidez zenbait zerga arautegi aldatzen dira balio erantsiaren gaineko zergan informazioa berehala hornitzea gehitzeko).

Geroago abenduaren 26ko 703/2017 Foru Agindua onartu zen; agindu horren bidez balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez artezteko arauak eta zehaztapen teknikoak ezartzen ziren. Sistema hori Balio erantsiaren gaineko zergaren Arautegiko 62.6 artikuluan ezarri zen (arautegia apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartu zuen).

Araudi hau indarrean egon den hiletan arau zehaztapen eta zehaztapen tekniko batzuk aldatu beharra eragiten duten gorabehera formal eta tekniko batzuk antzeman dira.

Foru agindu honetako aldaketetatik aipamen berezia merezi du honako honek: identifikazio eremu berria gehitu da sozietateak berregituratzeko eragiketen ondorioz entitate baten oinordeko gertatzen diren entitateen fakturazio erregistroetarako.

Horrez gainera aldaketatxo batzuk egin behar izan dira erregistro liburuetako faktura eta agiri moten gakoetan. Hain zuzen ere, faktura gako berria gehitzen da jasotako fakturen erregistro liburuan, aduanetako inportazioen balio erantsiaren gaineko zergaren likidazio osagarriak gainerako aduana agirietatik bereizita erregistratu ahal izateko. Gainera, berariazko bi marka sortzen dira honako hauek adierazi ahal izateko: bata, faktura erraztuan hartzailearen identifikazioa agertzen denez (fakturazio betebeharren arautegiak 7. artikuluko 2. eta 3. idatz zatietan ezartzen duena betetzeko; arautegi hori maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuak onartzen du); bestea, arautegiko 6. artikuluaren arabera egindako fakturetan ez dagoela hartzailearen identifikazioa, 6.1.d) artikuluak arautzen duena.

Halaber, oraindik aurrera honako hauek identifikatu beharko dira: hirugarrenek fakturazio betebeharren arautegiko bigarren eta bosgarren xedapen gehigarrien arabera egiten dituzten fakturak, Energiaren Estatu Idazkaritzaren 2015eko abenduaren 4ko Ebazpenaren III. eranskineko 1.4 idatz zatian xedatzen denarekin bat etorriz (ebazpen horren bidez gasaren merkatu antolatuaren erregelak, horri atxikitzeko kontratua eta merkatu horretako ebazpenak onartzen dira). Identifikazio horren xedea da inguruabar hori kontuan edukitzea informazioa bidaltzeko epealdiak zenbatzean.

Aldaketa honetaz baliatu gara gako berria sartzeko balio erantsiaren gaineko zergaren kutxa irizpidearen araubide berezian egindako edo haren eraginpean dauden eragiketetan erabilitako kobrantzabideak edo ordainbideak adierazteko. Gako berria banku helbideratzearen egiten diren kobrantzak eta ordainketak zehazteko erabiliko da. Gainera, foru agindu honen bidez erregistro eremu batzuen izenak aldatu dira, edukia argiago eta zehatzago adierazteko.

Beste alde batetik, zehaztu behar izan da zer informazio eman behar duten balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez arteztu beharra ekitaldiko lehen egunetik ez beste egun batetik aurrera edukiko duten subjektu pasiboek betebeharra sortu aurreko ekitaldiko aldiari buruz. Horretarako, bigarren xedapen gehigarria erantsi zaio abenduaren 26ko 703/2017 Foru Aginduari.

Gainera, fakturazio erregistroak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez bidali behar dituzten subjektu pasiboen egindako eskaera batzuk aintzat hartuta, hainbat aldaketa eta hobekuntza egin dira erregistro liburuetan; hona:

«Kanpoko errferentzia» deritzon eremua sortu da; bertan subjektu pasiboek nahi dutena idatzi ahal izango dute, nahi izatera, aurreko erregistro liburuetako helburu berarekin.

Egindako fakturen erregistro liburuan berariazko eremuak sortu dira salbuespen arrazoietarako, arrazoi bakoitzagatik zerga oinarrian salbuetsita dagoen zenbatekoa identifikatu ahal izateko.

Marka berezia sortu da erregistro liburuak bidaltzeko epealdian bidaltzen gaitz izango diren fakturazio erregistroak identifikatzeko; eragozpenen arrazoia izan daiteke subjektu pasiboak ez jakitea ziur enpresa handi bihurtu dela edo ikuskapenerako eskumena aldatu dela, edo bestela hileko itzulketen erregistroan alta emateko eskaera inskripzioak ondorioak sortzen dituen aldiko lehen egunaren ondotik aurkeztea.

Bi komunikazio gako berri sortu dira egindako fakturen erregistro liburuan; izan ere, informazioa emateko prozedura berria ezarri da balio erantsiaren gaineko zergaren itzulketak egiteko bidaiarien araubidean (araubide hori urtarrilaren 19ko 12/1999 Araugintzako Foru Dekretuaren bidez onartutako Balio erantsiaren gaineko zergaren Arauko 21.2 artikuluan ezartzen da). Informazioa bidaltzeko modalitate horretan ezinbestekoa da itzulketen erregistroak identifikatzea komunikazio mota berri batekin eta fakturaren zenbakiaren eremuan Balio erantsiaren gaineko zergaren Arautegiko 9. artikuluan aipatzen den itzulketa dokumentua.

Halaber, eta aurrean esan bezala jaso ditugun iradokizun ugariak aintzat hartuta, berariazko eskema sortu da hamabost katastro erreferentziatik gorako fakturak dituzten subjektu pasiboek bereizita bidali ahal izateko salbuespena aplikatu beharrik ez dute negozio lokalen errentamenduko higiezinei buruzko informazio osoa.

Azkenik, atalase jakin baten gaineko zenbatekoa duten fakturen identifikatzailea sortu da, erregistroetan errorerik gerta ez dadin. Horrenbestez, zenbateko hori gainditzen duten fakturen erregistroak identifikatzaile honekin markatu beharko dira, errorerik ez dela gertatu ziurtatzeko.

Aldaketa horien guztien ondorioz foru agindu honen I. eranskina ezartzen da abenduaren 26ko 703/2017 Foru Aginduaren I. eranskinaren ordez.

Apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartzen duen Balio erantsiaren gaineko zergaren Arautegiko 62.6 artikuluan ezarri zen fakturazio erregistro elektronikoak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez bidali behar direla, web zerbitzu baten bidez edo, bestela, formulario elektroniko baten bidez, eta ezinbestean Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak agindu bidez onartzen dituen erregistro eremuak erabiliz.

Apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartzen duen Balio erantsiaren gaineko zergaren Arautegiko 63. eta 64. artikuluetan ahalmena ematen zaio Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuari foru agindu bidez xedatzeko zer erantsi behar den faktura motak identifikatzeko eta zerga ondorioak dituen informazioa emateko, martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretuak, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko argibideak eman beharra arautzen duenak, 3 - 5 bitarteko artikuluetan arautzen duenarekin bat etorriz.

Zeharkako Zergen Zerbitzuak egindako txostena aztertu da.

Hori dela bide, eta ditudan ahalmenez baliatuz, hauxe



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

XEDATZEN DUT

**Artikulu bakarra. Abenduaren 26ko 703/2017 Foru Agindua aldatzea. Agindu horren bidez balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez arteztekoo arauak eta zehaztapen teknikoak ezartzen ziren; sistema hori Balio erantsiaren gaineko zergaren Arautegiko 62.6 artikuluan ezarri zen (arautegia apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartu zuen)**

Honako aldaketa hauek egiten dira abenduaren 26ko 703/2017 Foru Aginduan (agindu horren bidez balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez arteztekoo arauak eta zehaztapen teknikoak ezartzen ziren; sistema hori apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartzen duen Balio erantsiaren gaineko zergaren Arautegiko 62.6 artikuluan ezarri zen):

Bat. 2. artikuluko 2. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

"2. Faktura motak identifikatzeko balio dezaketen bestelako zehaztapenen inguruko informazioari dagokionez (Balio erantsiaren gaineko zergaren Arautegiak, apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartzen duenak, 63.3 artikuluko a, d eta e letretan ezartzen duen informazioa), zehaztapen hauek ere eman beharko dira, behar izanez gero:

a) Faktura fakturazio betebeharren arautegiak, maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuak onartzen duenak, 6. edo 7. artikuluan xedatzen duenaren arabera egin den.

Fakturazio betebeharren arautegiko 7. artikuluko 2. eta 3. idatz zatietan ezartzen denaren arabera egiten diren fakturak marka bereziarekin erregistratuko dira arautegi bereko 6. artikuluan arautzen diren fakturekin batera, hauek ere berariazko identifikazio marka dutela.

Fakturazio betebeharren arautegiko 6. artikuluan ezartzen denaren arabera egiten diren fakturetan hartzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi beharrik ez badago arautegiko 6.1 artikuluko d) idatz zatian ezartzen denarekin bat etorriz, fakturak marka bereziarekin erregistratuko dira arautegiko 7. artikuluko 1. idatz zatian arautzen diren fakturekin batera.

b) Egindako fakturak aurreko faktura bat zuzentzen duen, fakturazio betebeharren arautegiko 15. artikuluan xedatzen denaren arabera, eta zer arrazoi izan den zuzenketa egiteko. Faktura zuzentzailea izanez gero, eta fakturazio erregistroen hornidura elektronikorako ez beste ezertarako, zuzendutakoa faktura identifikatzea aukerakoa izango da.

c) Fakturazio erregistroa lehendik egindako faktura erraztu baten ordez egindako den faktura bati dagokion. Hala bada, eta fakturazio erregistroaren hornidura elektronikorako ez beste ezertarako, faktura erraztua identifikatzea aukerakoa izango da.

d) Fakturazio erregistroa fakturen laburpen idazpen bati dagokion (idazpen hori apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartzen duen balio erantsiaren gaineko zergaren arautegiko 63.4 artikuluan arautzen da).

e) Honako faktura hauen identifikazioa: hartzaileak edo hirugarrenak fakturazio betebeharren arautegiko 5. artikuluan xedatzen denarekin bat etorriz egindako fakturak; hirugarrenek fakturazio betebeharren arautegiko bigarren eta bosgarren xedapen gehigarrien arabera egiten dituzten fakturak edo Energiaren estatu Idazkaritzaren 2015eko abenduaren 4ko Ebazpenaren III. eranskineko 1.4 idatz zatian xedatzen denarekin bat etorriz (ebazpen horren bidez gasaren merkatu antolatuaren erregelak, horri atxikitzeko kontratua eta merkatu horretako ebazpenak onartzen dira) egiten dituztenak.

f) Hartzaileak identifikazio fiskaleko zenbakirik ez duenean edo, edukita ere, «N» letraz hasten bada, adierazi behar da nolakoa den eragiketaren xedea, eta eragiketa ondasun ematea edo zerbitzugintza den zehaztu."



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Bi. 3. artikuluko 1. eta 2. idatz zatiak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

"1. Jasotako fakturen erregistro liburuan Balio erantsiaren gaineko zergaren Arautegiak, apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartzen duenak, 64.4 artikuluan aipatzen duen informazio guztia agertu behar da. Horretarako, honako hauek zehaztu behar dira:

a) Faktura fakturazio betebeharren arautegiak, maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuak onartzen duenak, 6. edo 7. artikuluan xedatzen duenaren arabera egin den.

Fakturazio betebeharren arautegiko 7. artikuluko 2. eta 3. idatz zatietan ezartzen denaren arabera egiten diren fakturak marka bereziarekin erregistratuko dira arautegi bereko 6. artikuluan arautzen diren fakturekin batera.

b) Fakturazio erregistroa fakturen laburpen idazpen bati dagokion (idazpen hori apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuak onartzen duen balio erantsiaren gaineko zergaren arautegiko 64.5 artikuluan arautzen da).

c) Inportazioen kasuan, aduana agiriari buruzko informazioa eman behar da. Horrelakoetan, balio erantsiaren gaineko zerga likidatzen duen aduana agiriaren zenbakia adierazi behar da edo, bestela, aduanako likidazio osagarriaren zenbakia.

d) Fakturaren kontabilitate erregistroaren, kontabilitateko frogagiriaren edo aduana agiriaren data.

2. Zerga ondorioak dituen informazio hau adierazi behar da (martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretuak, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko argibideak eman beharra arautzen duenak, 3 - 5 bitarteko artikuluetan aipatzen dituen datuak):

a) Negozio lokalen errentamendu eragiketengatik jasotako fakturen identifikazioa.

b) Maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuak hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen dituen fakturak egiten dituzten bidaia agentziek besteren izenean eta kontura bitartekari modura egiten dituzten zerbitzu hauen berri eman behar dute: xedapen horretako 7.b) idatz zatian aipatzen diren zerbitzuak.

c) Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako Lurralde Historikoko zergenak, 91. artikuluko 1. eta 2. idatz zatietan aipatzen dituen pertsonek eta entitateek enpresa edo lanbide jardueretatik kanpo egiten dituzten ondasun edo zerbitzu eskuraketen berri eman behar dute, martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretuak, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko argibideak eman beharra arautzen duenak, 3.3 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz.

d) Aseguru entitateek aseguru eragiketen berri eman behar dute, martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretuak, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko argibideak eman beharra arautzen duenak, 2.1.c), 3,1 eta 3.2.i) artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorriz. Nolanahi ere, faktura jasoz gero, artikulu honetako aurreko idatz zatian ezartzen dena aplikatuko da.

Idatz zati honetako b) eta d) letretan aipatzen diren eragiketen informazioa urtean behin eman beharko da, ekitaldia amaitu eta hurrengo urtarrilaren lehen 30 egunetan. Informazioan taldekatuta agertu behar da pertsona edo entitate bakoitzaren eragiketak, martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretuak, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko argibideak eman beharra arautzen duenak, aldi egozketaz 5. artikuluan ezartzen dituen irizpideen arabera."

Hiru. Xedapen gehigarri bakarra lehen xedapen gehigarria izango da.

Laugarrena. Bigarren xedapen gehigarria eransten da:

"Bigarren xedapen gehigarria. Erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez arteztu beharra ezarri aurreko aldiari buruz eman beharreko informazioa (arteztu beharra ezartzen den ekitaldi berekoa).



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez arteztu beharra ekitaldiko lehen egunetik ez beste egun batetik aurrera edukiko duten subjektu pasiboek betebeharra sortu aurreko aldiko faktura erregistroak, ekitaldi horretakoak, bidali beharko dituzte. Erregistro horietan aldi horretan egindako eragiketei buruzko informazioa adierazi beharko da, hau da, apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren bidez onartutako Balio erantsiaren gaineko zergaren Arautegiko 63.3, 64.4 eta 66.3 artikuluen arabera arautegi horretako 62.6 artikuluan aipatzen diren pertsonek eta entitateek balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuetan idatzohartu behar dituzten eragiketei buruzko informazioa.

Informazioa ematearekin batera zehaztu beharko da eragiketak balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez arteztu beharra ezarri aurreko aldikoak direla, eta horretarako foru agindu honen I. eranskinean horretarako ezartzen den identifikazioa erabili beharko da.

Informazio hori foru agindu honetako 7. eta 8. artikuluetan arautzen den prozesuaren arabera bidali behar da, eta artikulu horien ezartzen diren formatuari eta diseinuari lotuz.

Aldi horretako fakturazio erregistroak bidaltzeko epealdia erregistro liburuak horrela arteztu beharra ezartzen denetik ekitaldiko abenduaren 31ra artekoa izango da.

2. Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez arteztu beharreko inbertsio ondasunen erregistro liburuan (apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren bidez onartutako Balio erantsiaren gaineko zergaren Arautegiko 65. artikuluan arautzen da) ekitaldi osoko idatzoharrak egin behar dira.

3. Foru agindu honetako 2.3 eta 3.2 artikuluetan ezartzen denaren arabera urtero eman beharreko informazioan ekitaldi osoko eragiketak agertu behar dira.”

Bost. I. eranskinaren ordez foru agindu honen I. eranskina ezartzen da.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu ondoko egunean jarriko da indarrean eta 2018ko uztailaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 9a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*
*JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ*

*Ogasuneko zuzendaria*
*TERESA VIGURI MARTÍNEZ*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

I.ERANSKINA

**ARABAKO FORU ALDUNDIAREN EGOITZA ELEKTRONIKOAREN BIDEZ ERAMATEN DIREN BEZ-AREN ERREGISTRO LIBURUEN EDUKIEN ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK**

| | | |
|---|---|---|
| Legenda | Gorriz= | Bete beharreko eremua |
| | Beltzez= | Aukerako eremua |
| | (arrosa) | Hautatzeko eremua |
| | (horia) | Berria/aldatua bertsioan |

# I. ALTA ETA ALDAKETA MEZUEN ERREGISTRO EREMUAK ETA ZEHAZTAPEN FUNTZIONALAK.

Eskuratu beharreko informazioa ondoren aipatzen diren erregistro liburuen mota bati lotuta bidaliko da edo, hala badagokio, zerga eragina duen eragiketa modura kalifikatuz gero.

1. Egindako fakturen erregistro liburua
2. Jasotako fakturen erregistro liburua
3. Inbertsio ondasunen erregistro liburua
4. Erkidegoaren barruko eragiketa zehatzen erregistro liburua
5. Urtean zerga eragina duten bestelako eragiketen hornidura

    5.1 Eragiketak eskudirutan (6.000 eurotik gorako zenbatekoak, pertsona edo erakunde beraren ekitaldian eskudirutan jaso badira)


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

5.2 Aseguruen eragiketak (aseguru-etxeek jasotako primak edo kontraprestazioak jakinaraziko dituzte, baita ordaindutako kalte-ordainak edo prestazioak ere, faktura egiten ez bada)

5.3 Bidaia agentziak (zerbitzuak eskaintzea, beste baten izenean eta beste baten kontura emateko bitartekariak badira, maiatzaren 28ko 18/2013 FDk hirugarren xedapen gehigarriko 7.b) atalean azaldutakoaren arabera)

Ondoren, mezu informatikoetan integratutako erregistro eremu bakoitzaren deskribapena ageri da. Horietan, alta eta aldaketaren eragiketetarako Foru Ogasunaren bidez adierazitako balio erantsiaren gaineko zergari buruzko erregistro liburuetako edukiak zehazten dira. Fakturei dagozkien baja eragiketen kasuan, eskaera bajetarako mezu informatiko zehatzaren bitartez egingo da. Atalburu erkidea izango du, bidalketa berean baja eman nahi zaien faktura guztien zerrendarekin batera. Faktura eta ekitaldi bakoitza nahiz faktura bakoitzaren baja denboraldia adieraziko dira:

1. Eginiko fakturen erregistro liburua

| BLOKEA | DATUAK/ TALDEA | DATUAK/ TALDEA | DATUAK/ TALDEA | DATUAK/ TALDEA | DATUAK/ TALDEA | DATUAK/ TALDEA | DATUAK | | | DESKRIPZIOA | FORMATUA LUZERA ZERRENDA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Cabecera | IDVersionSii | | | | | | | | | Informazioa trukatzeko erabiltzen den eskemaren bertsioa identifikatzea | Alfanumérico(3)L19 |
| | Titular | NombreRazon | | | | | | | | Eginiko fakturen erregistro liburuaren titularraren izena/izen soziala | Alfanumérico(120) |
| | | NIFRepresentante | | | | | | | | Erregistro liburuaren titularrak duen ordezkariaren IFZ | FormatoNIF(9) |
| | | NIF | | | | | | | | Erregistro liburuaren titularrarekin lotuta dagoen IFZ | FormatoNIF(9) |
| | Tipo Comunicación | | | | | | | | | Eragiketa mota (alta, aldaketa) | Alfanumérico(2)L0 |
| Registro LRfacturas Emitidas | Periodo Liquidacion | Ejercicio | | | | | | | | Ekitaldia | Numérico(4) |
| | | Periodo | | | | | | | | Likidazio aldia | Alfanumérico(2)L1 |
| | IDFactura | IDEmisorFactura | NIF | | | | | | | Fakturaren igorlearekin lotuta dagoen IFZ | FormatoNIF(9) |

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | NumSerie FacturaEmisor | | | | | | | | Serie eta faktura zenbakiak, egindako faktura identifikatzeko (hala badagokio, idazpen laburpenaren lehen faktura) | Alfanumérico(60) |
| | | NumSerie FacturaEmisor ResumenFin | | | | | | | | Serie eta faktura zenbakiak, azken faktura identifikatzeko, Faktura mota fakturen idazpen laburpen bat denean | Alfanumérico(60) |
| | | FechaExpedicion FacturaEmisor | | | | | | | | Faktura egin zen eguna | Fecha(dd-mm-yyyy) |
| | Factura Expedida | TipoFactura | | | | | | | | Faktura mota zehaztea: faktura osoa, faktura sinplifikatua, faktura sinplifikatuen ordez eginiko faktura, laburpenaren erregistroa, edo zuzentzeko faktura | Alfanumérico(2)L2 EMI |
| | | TipoRectificativa | | | | | | | | Eremu horren bidez adierazten da ea zuzentzeko faktura ordezteko den ala aldatzeko den | Alfanumérico(1)L5 |
| | | Facturas Agrupadas | IDFactura Agrupada | NumSerie FacturaEmisor | | | | | | Eginiko faktura identifikatzen duten serie eta faktura zenbakiak | Alfanumérico(60) |
| | | | | FechaExpedicion FacturaEmisor | | | | | | Faktura egin zen eguna | Fecha(dd-mm-yyyy) |
| | | Facturas Rectificadas | IDFactura Rectificada | NumSerie FacturaEmisor | | | | | | Eginiko faktura identifikatzen duten serie eta faktura zenbakiak | Alfanumérico(60) |
| | | | | FechaExpedicion FacturaEmisor | | | | | | Faktura egin zen eguna | Fecha(dd-mm-yyyy) |
| | | Importe Rectificacion | Base Rectificada | | | | | | | Ordeztutako fakturaren edo fakturen oinarri ezargarria | Decimal(12,2) |
| | | | Cuota Rectificada | | | | | | | Ordeztutako fakturaren edo fakturen kuota jasanarazia | Decimal(12,2) |
| | | | CuotaRecargo Rectificado | | | | | | | Ordeztutako fakturaren edo fakturen baliokidetasun errekarguaren kuota | Decimal(12,2) |

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | FechaOperacion | | | | | | | | Eragiketa egin den eguna, baldin eta faktura egin zen egun bera ez bada | Fecha(dd-mm-yyyy) |
| | | Clave RegimenEspecial OTrascendencia | | | | | | | | BEZaren erregimen mota edo zerga arloan garrantzitsua den eragiketa bat identifikatzeko gakoa | Alfanumérico(2)L3.1 |
| | | Clave RegimenEspecial OTrascendencia Adicional1 | | | | | | | | BEZaren erregimen mota edo zerga arloan garrantzitsua den eragiketa bat identifikatzeko gako gehigarria | Alfanumérico(2)L3.1 |
| | | Clave RegimenEspecial OTrascendencia Adicional2 | | | | | | | | Eragiketa mota edo zerga arloan garrantzitsua den erregimen berezia identifikatzeko gako gehigarria | Alfanumérico(2)L3.1 |
| | | NumRegistro AcuerdoFacturacion | | | | | | | | Fakturazioaren edo erregistro liburuen alorreko baimena bidaltzean lortutako erregistro zenbakia | Alfanumérico(15) |
| | | ImporteTotal | | | | | | | | Fakturaren zenbateko osoa | Decimal(12,2) |
| | | BaseImponible ACoste | | | | | | | | BEZaren taldeetarako | Decimal(12,2) |
| | | Descripcion Operación | | | | | | | | Fakturaren xedearen deskripzioa | Alfanumérico(500) |
| | | RefExterna | | | | | | | | Kanpoko erreferentzia. Eduki libreko datu osagarria, "bezeroak" aplikazio batzuek bidalitakoa (kontabilitate idazpena, etab.). | Alfanumérico(60) |
| | | FacturaSimplificada Artículos7.2_7.3 | | | | | | | | Faktura sinplifikatua Maiatzaren 28ko 18/2013 FDren 7.2 eta 7.3 artikulua Eremu hau jakinarazten ez bada, "N balioa duela ulertuko da. | Alfanumérico(1)L26 |
| | | EntidadSucedida | NombreRazon | | | | | | | Berregituratze eragiketaren ondorioz oinordetutako erakundearen izena-sozietatearen izena | Alfanumérico(120) |
| | | | NIF | | | | | | | Berregituratze eragiketaren ondorioz oinordetutako erakundeari lotutako IFZ | FormatoNIF(9) |

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | RegPrevioGGEEo REDEMEo Competencia | | | | | | | | (GGEE)ra baldintza aldatua dagoela, (REDEME)n sartuta daudela edo ikuskapen aginpidean aldaketa ageri dela ez jakiteagatik epean bidaltzeko zailtasunak dituzten fakturazio erregistroen identifikatzailea. Eremu hau jakinarazten ez bada, balioa "N" dela ulertuko da. | Alfanumérico(1)L28 |
| | | Macrodato | | | | | | | | 100.000.000 euroko atalasearen gainetik faktura-zenbatekoa duten fakturen identifikatzailea.<br><br>Eremu hau ez bada jakinarazten, balioa "N" dela ulertuko da. | Alfanumérico(1)L29 |
| | | DatosInmueble | Detalle Inmueble | Situación CInmueble | | | | | | Higiezinaren kokapena zehazten duen identifikadorea | Numérico(1)L6 |
| | | | | Referencia Catastral | | | | | | Higiezinaren katastroko erreferentzia | Alfanumérico(25) |
| | | ImporteTransmision InmueblesSujeto AIVA | | | | | | | | BEZaren araberako higiezinen eskualdaketarengatik jasotako zenbatekoa | Decimal(12,2) |
| | | EmitidaPorTerceros ODestinjatario | | | | | | | | Faktura hirugarrenak edo hartzaileak egin al duen zehazteko identifikatzailea.<br><br>Eremu hau ez bada jakinarazten, balioa "N" dela ulertuko da. | Alfanumérico(1)L10 |
| | | Facturacion DispAdicionalTercera YsextayDelMercado OrganizadoDelGas | | | | | | | | Araudiaren eskakizunarekin bat (fakturazioaren betebeharrak eta gasaren merkatu antolatua arautzen duen araudiari buruzko bigarren eta bosgarren xedapen gehigarriak) faktura hirugarren batek egin al duen zehazteko identifikatzailea. | Alfanumérico(1)L25 |
| | | VariosDestinatarios | | | | | | | | Fakturak zenbait hartzaile ote dituen zehazten duen identifikadorea. Ezer adierazten ez bada, eremuaren balioa "E" dela ulertuko da. | Alfanumérico(1)L20 |

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | Cupon | | | | | | | | Identifikadore honek zehazten du ea R1, R5 edo F4 motako fakturaren oinarri ezargarria txikiagoa den kupoiak, hobariak edo deskontuak direla eta, jatorrizko faktura soilik jaulki bada. Ezer adierazten ez bada, eremuaren balioa "E" dela ulertuko da. | Alfanumérico(1)L22 |
| | | FacturaSinIdentif Destinatario Aritculo6.1.d | | | | | | | | Hartzailearen identifikaziorik gabeko faktura Maiatzaren 28ko 18/2013 FDren 6.1.d) artikulua<br><br>Eremu hau jakinarazten ez bada, "N" balioa duela ulertuko da. | Alfanumérico(1)L27 |
| | | Contraparte | NombreRazón | | | | | | | Eginiko fakturen eragiketako kontrako alderdiaren (bezeroa) izena/izen soziala | Alfanumérico(120) |
| | | | NIF Representante | | | | | | | Eragiketako kontrako alderdiaren ordezkariaren IFZ | FormatoNIF(9) |
| | | | NIF | | | | | | | Eginiko fakturen eragiketako kontrako alderdiaren (bezeroa) IFZren identifikadorea | FormatoNIF(9) |
| | | | IDOtro | CodigoPais | | | | | | Eginiko fakturen eragiketako kontrako alderdiarekin (bezeroa) lotutako herrialdearen kodea | Alfanumérico(2) (ISO 3166-1 alpha-2codes)L17 |
| | | | | IDType | | | | | | Egoitza herrialdean identifikazio mota finkatzeko gakoa | Alfanumérico(2)L4 |
| | | | | ID | | | | | | Egoitza herrialdean identifikatzeko zenbakia | Alfanumérico(20) |
| | | TipoDesglose | Desglose Factura | Sujeta | Exenta | Detalle Exenta | Causa Exencion | | | Eremuan zehazten da zergatik dagoen salbuetsita, aplikagarri den egoeretan | Alfanumérico(2)L9 |
| | | | | | | | Base Imponible | | | Ez lotuta edo salbuetsita dagoen zatiari dagokion zenbatekoa, eurotan | Decimal(12,2) |
| | | | | | NoExenta | TipoNo Exenta | | | | Ez lotuta dagoen eta salbuetsita ez dagoen eragiketa mota, subjektu pasiboen inbertsioa bereizteko | Alfanumérico(2)L7 |
| | | | | | | DesgloseIVA | DetalleIVA | Tipo Impositivo | | Oinarri ezargarriari aplikatutako ehunekoa, kuota kalkulatzeko | Decimal(3,2) |
| | | | | | | | | Base Imponible | | Zerga tasa jakin bat aplikatzen zaion diru kopurua | Decimal(12,2) |

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | Cuota Repercutida | | Oinarri ezargarriari zerga tasa jakin bat aplikatzearen ondoriozko kuota | Decimal(12,2) |
| | | | | | | | | TipoRecargo Equivalencia | | Lotutako ehunekoa, BEZ motaren arabera | Decimal(3,2) |
| | | | | | | | | CuotaRecargo Equivalencia | | Oinarri ezargarriari baliokidetasun errekargu tasa aplikatzearen ondoriozko kuota | Decimal(12,2) |
| | | | | NoSujeta | ImportePor Articulos7_14_Otros | | | | | Zenbatekoa eurotan, ez lotuta 7., 14. eta beste artikulu batzuen ondoriozkoa bada | Decimal(12,2) |
| | | | | | ImporteTAI Reglas Localizacion | | | | | Zenbatekoa eurotan, zergaren aplikazio lurraldean lokalizazio arauak direla-eta ez lotuta ez dauden eragiketak badira | Decimal(12,2) |
| | | | Desglose TipoOperacion | Prestacion Servicios | Sujeta | Exenta | Detalle Exenta | Causa Exencion | | Eremuan zehazten da zergatik dagoen salbuetsita, aplikagarri den egoeretan | Alfanumérico(2)L9 |
| | | | | | | | | Base Imponible | | Lotuta edo salbuetsita dagoen zatiari dagokion zenbatekoa, eurotan | Decimal(12,2) |
| | | | | | | NoExenta | Tipo NoExenta | | | Lotuta dagoen eta salbuetsita ez dagoen eragiketa mota, subjektu pasiboen inbertsioa bereizteko | Alfanumérico(2)L7 |
| | | | | | | | Desglose IVA | DetalleIVA | TipoImpositivo | Oinarri ezargarriari aplikatutako ehunekoa, kuota kalkulatzeko | Decimal(3,2) |
| | | | | | | | | | BaseImponible | Zerga tasa jakin bat aplikatzen zaion diru kopurua | Decimal(12,2) |
| | | | | | | | | | Cuota Repercutida | Oinarri ezargarriari zerga tasa jakin bat aplikatzearen ondoriozko kuota | Decimal(12,2) |
| | | | | | NoSujeta | ImportePorArticulos7_14_Otros | | | | Zenbatekoa eurotan, lotuta 7., 14. eta beste artikulu batzuen ondoriozkoa bada | Decimal(12,2) |
| | | | | | | ImporteTAIReglasLocalizacion | | | | Zenbatekoa eurotan, zergaren aplikazio lurraldean lokalizazio arauak direla-eta lotuta ez dauden eragiketak badira | Decimal(12,2) |
| | | | | Entrega | Sujeta | Exenta | Detalle Exenta | Causa Exencion | | Eremuan zehazten da zergatik dagoen salbuetsita, aplikagarri den egoeretan | Alfanumérico(2)L9 |
| | | | | | | | | Base Imponible | | Lotuta edo salbuetsita dagoen zatiari dagokion zenbatekoa, eurotan | Decimal(12,2) |
| | | | | | | NoExenta | Tipo NoExenta | | | Lotuta dagoen eta salbuetsita ez dagoen eragiketa mota, subjektu pasiboen inbertsioa bereizteko | Alfanumérico(2)L7 |

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | Desglose IVA | DetalleIVA | TipoImpositivo | Oinarri ezargarriari aplikatutako ehunekoa, kuota kalkulatzeko | Decimal(3,2) |
| | | | | | | | | | BaseImponible | Zerga tasa jakin bat aplikatzen zaion diru kopurua | Decimal(12,2) |
| | | | | | | | | | Cuota Repercutida | Oinarri ezargarriari zerga tasa jakin bat aplikatzearen ondoriozko kuota | Decimal(12,2) |
| | | | | | | | | | TipoRecargo Equivalencia | Lotutako ehunekoa, BEZ motaren arabera | Decimal(3,2) |
| | | | | | | | | | CuotaRecargo Equivalencia | Oinarri ezargarriari baliokidetasun errekargu tasa aplikatzearen ondoriozko kuota | Decimal(12,2) |
| | | | | | NoSujeta | ImportePor Articulos7_14_Otros | | | | Zenbatekoa eurotan, ez lotura 7., 14. eta beste artikulu batzuen ondoriozkoa bada | Decimal(12,2) |
| | | | | | | ImporteTAI Reglas Localizacion | | | | Zenbatekoa eurotan, zergaren aplikazio lurraldean lokalizazio arauak direla-eta ez lotuta ez dauden eragiketak badira | Decimal(12,2) |

Kutxaren irizpidearen araberako araubide berezian dauden subjektu pasiboen kasuan, egindako fakturei buruzko erregistro liburuan kobrantzei buruzko informazioa sartu beharko litzateke. Honako erregistro eremuei erreparatuz jakinaraziko da:

| BLOKEA | DATUAK/TALDEA | DATUAK/TALDEA | DATUAK/TALDEA | DATUAK/TALDEA | DESKRIPZIOA | FORMATUA LUZERA ZERRENDA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Cabecera | IDVersionSii | | | | Informazioa trukatzeko erabiltzen den eskemaren bertsioa identifikatzea | Alfanumérico(3)L19 |
| | Titular | NombreRazon | | | Eginiko fakturen erregistro liburuaren titularraren izena/izen soziala | Alfanumérico(120) |
| | | NIFRepresentante | | | Erregistro liburuaren titularrak duen ordezkariaren IFZ | FormatoNIF(9) |
| | | NIF | | | Erregistro liburuaren titularrarekin lotuta dagoen IFZ | FormatoNIF(9) |
| RegistroLR Cobros | IDFactura | IDEmisorFactura | NIF | | Fakturaren igorleak duen IFZren identifikadorea | FormatoNIF(9) |
| | | NumSerieFacturaEmisor | | | Igorritako faktura identifikatzen duten serie eta faktura zenbakiak (laburpenaren erregistroko lehen faktura, hala dagokionean) | Alfanumérico(60) |
| | | NumSerieFacturaEmisorResumenFin | | | Azken faktura identifikatzen duten serie eta faktura zenbakiak, FakturaMota fakturen laburpenaren erregistroa bada | Alfanumérico(60) |
| | | FechaExpedicionFacturaEmisor | | | Faktura egin zen eguna | Fecha(dd-mm-yyyy) |
| | Cobros | Cobro | Fecha | | Kobratzea egin zen eguna | Fecha(dd-mm-yyyy) |
| | | | Importe | | Kobratutako zenbatekoa | Decimal(12,2) |
| | | | Medio | | Kobratzeko erabilitako bitartekoa | Alfanumérico(2)L11 |
| | | | Cuenta_O_Medio | | Kobratzeko erabilitako banku korrontea edo bitartekoa | Alfanumérico(34) |


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Subjektu pasiboek fakturazio erregistro berean katastro-erreferentzien hamabost zenbakitik gora jakinarazten badituzte (atxikipenik ez duten negozio lokalen errentamenduak), erreferentzia horien hornidura honako erregistro eremuak kontuan hartuta egingo da:

| BLOKEA | DATUAK/TALDEA | DATUAK/TALDEA | DATUAK/TALDEA | DATUAK/TALDEA | DESKRIPZIOA | FORMATUA LUZERA ZERRENDA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Cabecera | IDVersionSii | | | | Informazioa trukatzeko erabilitako eskemaren bertsioa identifikatzea. | Alfanumérico(3)L19 |
| | Titular | NombreRazon | | | Egindako fakturen erregistro liburuaren titularraren izena-sozietatearen izena | Alfanumérico(120) |
| | | NIFRepresentante | | | Erregistro liburuko titularraren ordezkariari dagokion (NIF) | FormatoNIF(9) |
| | | NIF | | | Erregistro liburuaren titularrari lotutako IFZ | FormatoNIF(9) |
| RegistroLRInmuebles Adicionales | IDFactura | IDEmisorFactura | NIF | | Fakturaren igorlearen (NIF)ri dagokion identifikatzailea | FormatoNIF(9) |
| | | NumSerieFacturaEmisor | | | Egindako faktura identifikatzen duen (Nº Serie+Nº Factura) (hala badagokio, laburpen idazpenaren lehenengo faktura) | Alfanumérico(60) |
| | | FechaExpedicion FacturaEmisor | | | Fakturaren egite eguna | Fecha(dd-mm-yyyy) |
| | DatosInmueble | DetalleInmueble | SituaciónInmueble | | Higiezinaren egoera zehazten duen identifikatzailea | Numérico(1)L16 |
| | | | ReferenciaCatastral | | Higiezinaren katastro erreferentzia | Alfanumérico(25) |

## 2. Jasotako fakturen erregistro liburua

| BLOKEA | DATUAK/TALDEA | DATUAK/TALDEA | DATUAK/TALDEA | DATUAK/TALDEA | DATUAK/TALDEA | DATUAK | DESKRIPZIOA | FORMATUA LUZERA ZERRENDA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Cabecera | IDVersionSii | | | | | | Informazioa trukatzeko erabiltzen den eskemaren bertsioa identifikatzea | Alfanumérico(3)L19 |
| | Titular | NombreRazon | | | | | Jasotako fakturen erregistro liburuaren titularraren izena edo izen soziala | Alfanumérico(120) |
| | | NIFRepresentante | | | | | Erregistro liburuaren titularrak duen ordezkariaren IFZ | FormatoNIF(9) |
| | | NIF | | | | | Erregistro liburuaren titularrarekin lotuta dagoen IFZ | FormatoNIF(9) |
| | TipoComunicación | | | | | | Eragiketa mota (alta, aldaketa) | Alfanumérico(2)L0 |
| Registro LRfacturas Recibidas | PeriodoLiquidacion | Ejercicio | | | | | Ekitaldia | Numérico(4) |
| | | Periodo | | | | | Likidazio aldia | Alfanumérico(2)L1 |
| | IDFactura | IDEmisorFactura | NIF | | | | Fakturaren igorleak duen IFZren identifikadorea | FormatoNIF(9) |
| | | | IDOtro | CodigoPais | | | Fakturaren igorlearekin lotuta dagoen herrialdearen kodea | Alfanumérico(2) (ISO 3166-1alpha-2 codes)L17 |
| | | | | IDType | | | Egoitza herrialdean identifikazio mota finkatzeko gakoa | Alfanumérico(2)L4 |
| | | | | ID | | | Egoitza herrialdean identifikatzeko zenbakia | Alfanumérico(20) |
| | | NumSerieFacturaEmisor | | | | | Igorritako faktura identifikatzen duten serie eta faktura zenbakiak (laburpenaren erregistroko lehen faktura, hala dagokionean) | Alfanumérico(60) |
